

Gasteizko eta Laudioko enplegu anezketan izena emateko azken egunak

Www.lanzaderasdeempleo.es webgunean eta bi herrietan gaitutako bulegoetan eman dezakete izena interesdunek

Gasteiz, 2020ko urriaren 19a.- Arabako Foru Aldundiak eta Santa Maria la Real Fundazioak hiru enplegu anezka abian jarriko dituzte azaro honetan, Gasteizen (2) eta Laudion, langabetuei baliabide eraginkor bat eskaintzeko, lan bat aurkitzeko aukera hobetze aldera. www.lanzaderasdeempleo.es webgunean eta bi herrietan gaitutako bulegoetan **eman dezakete izena interesdunek**

Arabako Enplegu Anezken programaren bosgarren edizioa COVID-19ak eragindako osasun krisiari egokitzen zaio: **saio presentzialak** eta **lineakoak** bateratuko dira, premien arabera, eta **segurtasun** protokoloak aplikatuko dira (edukiera mugatua, segurtasun distantzia eta maskara nahitaez erabili beharra, gelak desinfektatu eta aireztatzea, eta abar). Halaber, eta edukiei dagokienez, parte hartzaileen gaitasun digitalak indartuko dira.

Foru aldundiak 115.000 euroko ekarpena egingo dio hiru enplegu anezkak garatzeari, eta Santa Maria la Real Fundazioak haiek antolatzearen eta gauzatzearen ardura izango du. Hiru enplegu anezkak, zeinetan guztira 60 plaza izango baitira, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailak langabeziaren aurka borrokatzeko daukan estrategiaren zati dira. Estrategia hori Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak ere finantzatzen du, 500.000 euroekin.

Modu horretan, bi erakundeek berriz ere editatuko dute elkarren arteko lankidetzak, programa honek aurreko lau edizioetan lorturiko **emaitza onen** ondoren. Lana aktiboki bilatzeko talde hauetan 250 arabarrek baino gehiagok parte hartu dute, 2016tik, eta haietatik ia % **60k** besteren konturako **lanpostu bat aurkitu dute**, euren negozioa martxan jarri dute edo profesionaltasun ziurtagiriak egin dituzte lan praktika eta guzti.

Programa hau **borondatezkoa** eta **doakoa** da, eta 18 eta 60 urte arteko, edozein prestakuntza mailako eta edozein lan sektoretako emakume eta gizon langabetuentzat da, berdin diolarik esperientzia duten ala ez. Horrekin lortu nahi dena da talde askotarikoa eta heterogeneoa taxutzea, hango kideek jakintzak eta esperientziak elkar truka ditzaten eta elkarlanean aritu daitezen lan merkatuan sartzeko.

Zer egingo dute enplegu anezketan?

Parte hartzaileak astean hiru aldiz bilduko dira bost hilabetez, Gasteizko eta Laudioko udalek lagatako lokaletan, eta saio presentzialak eta lineakoak eskainiko dira. Teknikari baten laguntzarekin hainbat jardura egingo dituzte haien lan bilaketa optimizatzen: autoezagutzako eta adimen emozionaleko lantegiak, komunikazio dinamikak, curriculum vitae-a eguneratzea eta lan elkarrizketen simulazioa.

Gainera, komunikazioko eta marka pertsonaleko teknika berriak ikasiko dituzte, enplegarritasun mapa bat taxutuko dute, enpresetara bisitak egingo dituzte eta bilerak egingo dituzte giza baliabideetako arduradunekin, errekrutatzaileekin eta zenbait arlotako adituekin.

Irekita dago izena emateko epea

Gasteizko eta Laudioko enplegu anezketan izena emateko epea zabalik dago oraindik, eta parte hartu nahi dutenek Lanzaderas webgunean (<https://lanzaderasdeempleo.es/formulario-de-inscripcion>) eman dezakete izena, edo aurrez aurre, Gasteizko eta Laudioko hirietako hurrengo bulego hauetan:

GASTEIZ

Ignacio Ellacuria Udal Ikastegia
(Castro Urdiales kalea, 10-12)
Telefona: 945 161 860
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

LAUDIO

Laudioko Udaleko Tokiko Garapen Agentzia
ARZA eraikina (Irukurutzeta kalea)
Telefona: 944 034 980
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:30era.